

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 852/2021 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea Basogintzako Laguntza Planaren 2022ko laguntzen deialdia

Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 7ko 45/2016 Foru Dekretuaren bidez, Basogintzarako Laguntza Planaren oinarri arautzaileak onetsi ziren; planaren barruan jasotzen dira 2015-2020 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Programak “nekazaritza eta basogintza sektorea garatzeko, modernizatzeko edo egokitzeko azpiegituretako inbertsioak” M04.3 azpineurrian eta “inbertsioak basoguneak garatzeko eta basoen bideragarritasuna hobetzeko” M08. neurrian ezarritako laguntza lerroak, betiere 1305/2013 Arautegiak ezarritako mugen barruan, hala nola programa horretan sartzen ez den eta “basoen kontserbazioa” deritzon neurria.

Ondoren, urtean urteko deialdiak onetsi eta, aldi berean, Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 7ko 11/2017 Foru Dekretuak eta martxoaren 19ko 13/2018 Foru Dekretuak oinarri arautzaileak aldatu zituzten, laguntzak errazago aplikatzeko eta oinarri berriak aplikatzekoa zen araudi berrira egokitzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 19ko 8/2019 Foru Dekretuaren bidez, onespena eman zitzaion ekainaren 7ko 45/2016 Foru Dekretuan atzemandako hutsaren zuzenketari, eta 2019ko laguntzen deialdia onetsi zen.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020ko abenduaren 23ko 2020/2220 Erregelamenduak Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) eta Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren (FEAGA) 2021. eta 2022. urteetarako laguntzetarako xedapen iragankorrak ezarri zituen, eta 2022ko abenduaren 31ra arteko luzapena ezarri zuen, LGENFk finantzatzeko eta 2020. urtean amaitzen ziren programetarako.

Bestalde, Kontseiluaren 2020ko abenduaren 14ko 2020/2094 (EB) Erregelamenduak Europar Batasuna suspertzeko tresna bat ezarri zuen, COVID-19aren krisiaren ondorengo susperraldian laguntzeko, eta ezarri zuen ezen tresna horren funtsen zati bat Landa Garapenerako Programen esparruan erabili behar dela 2021. eta 2022. urteetan. Horiek horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko LGPK tresna horretatik datozen funtsak izango ditu (EURI funtsak), eta Arabako Foru Aldundiak horien zati bat izango du 4.3 neurriari loturiko jarduketetarako, zeinen ehuneko 53 EURI funtsak kofinantzatuko baitu.

Landa Garapenerako Programan laguntza hauetarako esleitutako LGENFren hornidurak agortuz gero, edo EURI funtsen hornidura nahikoa ez bada, laguntzak Aldundiak finantzatuko ditu oso-osorik, eta haiek finantzaketa gehigarritzat joko dira Landa Garapenerako Programaren esparruan.

Kontuan hartuz Arabako Foru Aldundiak 2022rako onetsiko duen gastuen aurrekontu proiektuan ezartzen dela laguntza deialdi hau finantzatzeko kreditua duten partidak izango direla, bidezkoa da hura alde aurretik izapidetzea.

Aginduzko txostenak ikusirik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Basogintzako Laguntza Planaren 2022ko laguntzen deialdia, alde aurretik izapidetzearen bidez, jarraian zehaztutakoaren arabera:

Laguntza lerroak edo neurriak:

- M08.1.: Basotzea eta baso eremuak sortzea.
- M08.3.: Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak prebenitzea.
- M08.4.: Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak konpontzea.
- M08.5.: Baso ekosistemen egokitze gaitasuna eta ingurumen balioa gehitzeko inbertsioak.
- M08.6.: Basogintzako teknologietan eta baso produktuen transformazioan, mobilizazioan eta merkaturatzean inbertitzea edo baso potentziala hobetzen inbertitzea.
- M04.3.: Baso sektorea garatzeko, modernizatzeko edo egokitzeko azpiegiturretan egindako inbertsioak.
- Basoen kontserbazioa.

Laguntza hauek, EAEko Landa Garapenerako 2015-2020ko Programaren esparruan, LGENFk finantzatzen ditu ehuneko 53an, salbu eta M8.1. "Basotzea eta baso eremuak sortzea" lerroa, horretarako Europako finantzaketa ehuneko 75 baita, eta "Basoen kontserbazioa" izeneko lerroa, oso-osorik Arabako Foru Aldundiak finantzatzen baitu. Landa Garapenerako Programaren laguntza hauetarako esleitutako LGENFren hornidurak agortuz gero, laguntzak Aldundiak finantzatuko ditu oso-osorik, eta haiek finantzaketa gehigarritzat joko dira Landa Garapenerako Programaren esparruan.

Bigarrena. Eskaerak aurkezteko epea:

30 egun balioudun, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena. Kreditu erreserbak:

Jarraian adierazten diren Arabako Foru Aldundiaren 2022ko ekitaldirako aurrekontu proiektuan onetsitako partiden kontura, ondoren adierazten diren zenbatekoek eta neurrietarako:

– 40106. G/172400/76290409 "Mendi publikoetarako laguntzak. Deialdi berria"

Kreditua, guztira, 915.000,00 euro (545.000,00 euro 2022an eta 370.000,00 euro 2023an) titulartasun publikoko mendietan aplikatutako honako neurri hauen laguntzak egozteko, neurri bakoitzaren zehaztasun eta guzti:

*90.000,00 euro (10.000,00 euro 2022an eta 80.000,00 euro 2023an) M08.4. "Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak konpontzea" izeneko neurriko laguntzak egozteko.

• 110.000,00 euro (85.000,00 euro 2022an eta 25.000,00 euro 2023an) M08.3. "Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak prebenitzea" izeneko neurriko laguntzak egozteko.

• 110.000,00 euro (10.000,00 euro 2022an eta 100.000,00 euro 2023an), M08.1. "Basotzea eta baso eremuak sortzea" izeneko neurriko laguntzak egozteko.

• 550.000,00 euro (385.000,00 euro 2022an eta 165.000,00 euro 2023an), M04.3. "Baso sektorea garatzeko, modernizatzeko edo egokitzeko azpiegiturretan egindako inbertsioak" neurriko laguntzak egozteko.

• 5.000,00 euro 2022an, M08.6. "Basogintzako teknologietan eta baso produktuen transformazioan, mobilizazioan eta merkaturatzean inbertitzea edo baso potentziala hobetzen inbertitzea" izeneko neurriko laguntzak egozteko.

• 50.000,00 euro 2022an, "Basoen kontserbazioa" izeneko neurri nazionalaren laguntzak egozteko.

40106. G/172400/7629408 "Mugaketak eta mugarritzeak. Deialdi berria"

• 175.000,00 euro (100.000,00 euro 2022an eta 75.000,00 euro 2023an), M08.5. "Baso ekosistemen egokitze gaitasuna eta ingurumen balioa gehitzeko inbertsioak" neurriko laguntzak egozteko.

– 40106. G/172400/780003 “Mendi pribatueterako dirulaguntzak. Deialdi berria”

Kreditua, guztira, 485.000,00 euro (285.000,00 euro 2022an eta 200.000,00 euro 2023an) titulartasun partikularreko mendietan aplikatutako honako neurri hauen laguntzak egozteko, neurri bakoitzaren zehaztasun eta guzti:

- 90.000,00 euro 2022an, M08.4. “Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak konpontzea” izeneko neurriko laguntzak egozteko.
- 190.000,00 euro (170.000,00 euro 2022an eta 20.000,00 euro 2023an) M08.3. “Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak prebenitzea” izeneko neurriko laguntzak egozteko.
- 200.000,00 euro (20.000,00 euro 2022an eta 180.000,00 euro 2023an), M08.1. “Basotzea eta baso eremuak sortzea” izeneko neurriko laguntzak egozteko.
- 5.000,00 euro 2022an M08.6. “Basogintzako teknologietan eta baso produktuen transformazioan, mobilizazioan eta merkaturatzean inbertitzea edo baso potentziala hobetzen inbertitzea” izeneko neurriko laguntzak egozteko.

Kreditu horiek zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango dira, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 21. artikuluan ezarritako mugen barruan, baita aurrekontu partidan edozein arrazoiengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez ere. Zenbateko gehigarri horiek, gehienez ere, deialdi osorako hasierako zenbateko erreserbatua adina izango dira.

Azpineurriren batean kreditu soberakina egonez gero, beste neurrietara bideratu ahalko da premia izanez gero, kontuan izanda zein lehentasun ordena ezarri den oinarri arautzaileen 9. artikuluan.

Laugarrena. Dirulaguntzak emateko baldintza etengarria izango da kreditu egoki eta nahikoa egotea Arabako Foru Aldundiaren 2022rako eta 2023rako aurrekontu antolamenduan.

Bosgarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea honako foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko eta, zehazki, oinarri arautzaileen kontra nahiz deialdien ebazpenaren kontra jartzen diren errekurtso guztiak ebazteko.

Seigarrena. Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta, haren aurka, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko organo horri, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Zazpigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 28a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE